


2017ko OPORRAK

Argazki lehiaketaren
oinarriak



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA



ermuapuntocultural
ermuapuntukulturala

Tf. : 943708700 - Fax: 943175235
oij-gib@udalermua.net



PARTE HARTZAILEAK

Euskal Herrian bizi diren adin nagusiko pertsona orok parte hartu ahal izango du.

MODALITATEA

Bi modalitate ezarri dira: bata kamara digital edo analogikoarekin ateratako argazkientzat eta bestea telefono mugikorrarekin ateratakoentzat.

Argazkiak originalak, argitaratugabeak eta bestelako lehiaketaren baten saritugabeak beharko dute izan.

GAIA

“2017ko OPORRAK”, munduan zehar eginiko edozein bidaiatan ateratako argazkiak.

LANEN EZAUGARRIAK

Neurria: gehienekoa 24 x 30 cm eta gutxienezkoa 18 x 24cm. Argazkiak 40 x 50 cm-ko kartoi mehe baten aurkeztuko dira. Partaide bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere, bakoitzaren gaia ezberdina izan daitekeelarik.

LANAK ENTREGATZEKO MODUA

Argazki bakoitza behar bezala bilduta aurkeztuko da, kanpoaldean “ARGAZKI LEHIAKETA-2017ko OPORRAK” esaldia idatzita duela.

Argazkiaren atzealdean beorren titulua eta egilearen goitizena azalduko dira argi eta garbi; aparteko kartazal baten, itxita, NANaren fotokopia, harremanetarako telefono zenbakia eta argazkiaren titulua, eta non eta zein egunetan egingadako den jasoko dira. Kartazalaren kanpoaldean argazkiaren titulua eta goitizena adieraziko dira berriz ere.

Argazkiak telefono mugikorrarekin ateratakoak badira, gutunazalean adierazi beharko da espresuki.

MUGA TEKNIKOAK

Argazkiak ez dira elektronikoki ez eta beste edozein baliabideren bitartez aldatuko. Ez da fotomuntaketarik onartuko, eta argazkiaren kolore edo argitasunaren zuzenketa ere ez.

LANAK ENTREGATZEKO LEKUA

Lanak gutun zerifikatuz bidali edo zuzenean honako helbidean entregatuko dira: Lobiano Kultur Gunea Goienkale, 10 48260 Ermua (Bizkaia) Postaz bidali eta lanak galdu edo hondatuz gero, antolatzaileek ez dute horren erantzukizunik gain hartuko.

EPEA

Lanak 2017ko urriaren 6ko 14:00ak arte aurkeztu ahal izango dira.

EPAIA

2017ko urriaren 10ean eman go da ezagutzera ebatzia. Lehaiketarako beren berez eratuko den epaimahai batek erabakiko du zein diren argazki irabazleak, kalitatearen eta autorearen ahalmen sortzailearen arabera.

Aurkeztutako lanak kalitate-rik izan ezean epaimahaikoek saririk ez ematea erabaki dezakete. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta oinarri hauen gainean nola-baiteko zalantza, ezusteko edo interpretazio-arazorik sortuko balitz, epaimahaikoen iritzia izango du lehentasuna.

SARIAK

Bi sari emango dira:

- Nagusia: 500€ eskudirutan.
- Telefono mugikorra: 300€ eskudirutan.

Pertsonako sari bakarra eskuratuko da, sariak ez baitira bateragarriak izango.

LANEN JABETZA

Saritutako lanak Ermuko Udalarentzat izango dira eta berea izango da lanak erakusgai jarri eta/edo erreproduzitzeko eskubidea, hortaz ez da egile-ekubidea eskatzerik egongo. Sarituriko lanak Udalaren kultur ondarrera pasako dira eta ezingo dira saldu.

Argitaratu eta erreproduzitzen diren lanek autorearen izena jasoko dute.

ERAKUSKETA

Lan guztiak Lobiano Kultur Gunearen erakusketa aretoan jarriko dira ikusgai, 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 15era.

LANAK ITZULTZEA

Sarituak izan ez diren lanak erakusketa amaitu eta 30 eguneko epean itzuliko dira.

Antolatzaileak lanak ahalik eta ondoen zaintzen ahaleginduko dira, baina bidean galdu edo hondatuko balira ez dira gertatutakoaren erantzule izango.

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berau arautzen duten oinarriak onartzea dakar.